

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Alegría-Dulantziko AL17-02 eremuko 1298 partzelako soberako partzela deklaratzeko espedienteari hasierako onespena ematea

Udal honetako Osoko Bilkurak, 2026ko irailaren 16an egindako ohiko bilkuran, Alegría-Dulantziko AL17-02 eremuko 1298 partzela lursail soberakin deklaratzeko espedienteari hasiera ematea eta hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Hona hemen lursail hori:

Katastroko erreferentzia:	010112980000010001BP	
Sailkapena:	Hiri-lurzorua finkatua	
Azalera:	1.951,26 m ²	
Erabilera:	Industria isolatua (b.12)	
Eraikuntza urtea:	Eraiki gabe	
Mugak:	Iparraldea	Trenbide-linearen ondoko berdegune publikoa
	Ekialdea	1.299 industria-lurzatia
	Hegoaldea	— Industria-partzela 55 — Komunikazioen sistema lokala
	Mendebaldea	1.223 industria-lurzatia
Kargak:	Hirigintza-kargarik gabe	

Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 8.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, espedientea jendaurrean jarriko da hilaibeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe horretan, espedientea aztertu ahal izango da udal bulegoetan (bulegoaren ordutegian, 9:00etatik 14:00etara) eta udalaren egoitza elektronikoan (<https://alegria-dulantzi.egoitzaelektronikoa.eus/info.0>), interesdunek egoki irizitako erreklamazioak, alegazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten.

Jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik edo alegaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenerako erabakia behin betiko onetsitatzeko joko da, eta ez da beharrezkoa izango berariazko beste erabaki bat hartzea, eta Udal Ondasunen Inbentarioa zuzenduko da.

Alegría-Dulantzin, 2026ko irailaren 17an

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA